

**ORDIZIAKO NERABEENTZAKO ZERBITZU PUBLIKOEN (GAZTE LOKALA) KUDEAKETA GARATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA.**

<b>UDAL ZERBITZU PUBLIKOAREN KONTRATUA</b>
<b>Xedea:</b> Kontratuaren xedea Ordiziako udalerrian nerabe eta gazteei zuzendutako gizarte-hezkuntzako zerbitzu publikoa garatu eta kudeatzeko laguntza teknikoa ematea
Prozedura: irekia
Izapidea: ohikoa

## **LEHENENGOA: SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA**

### **1.1 GAZTERIARI BURUZKO TOKI-POLITIKAREN DEFINIZIOA**

Ordiziako Udalaren Gazteria Politikaren xede nagusia da herriko haurrei, nerabeei eta gazteei haien haurtzaroan, nerabezaroan eta gaztaroan garatzeko eta gozatzeko aukera egonkorra eta etengabea ematea, etapa bakoitzak dituen bi alderdietan:

\*berezko balioa eta esanahia duen bizi-etape gisa

\*gaitasun pertsonalak eta gizarte-loturak indartuz, heldutasunera arrakastaz eta asetasunez igarotzeko aukera ematen duen bizi-etape gisa

### **1.2 GAZTERIA ZERBITZUAK**

Gipuzkoako Haurren eta Gazteen Sustapenerako Sistemaren arabera, Gaztematika, Gazteria politika bultzatzeko tresna nagusiak bizi-etape bakoitzari eskaintzen zaizkion zerbitzuak dira.

Haurtzaroan, nerabezaroan eta gaztaroan eskaintzen diren zerbitzuak dira garatzeko eta gozatzeko aukera egonkor eta etengabe hori bultzatzeko tresna nagusiak.

Gazteria Politikak epe luzera begira duen helburua hau da: adin-tarte bakoitzari zuzendutako zerbitzuen jarraitutasuna bermatuko duen egitura abiaraztea. Garapen horretako lehentasunezko urratsa “Nerabeentzako Zerbitzua” –NZ aurrerantzean-abiaraztea da.

Nerabezaroan areagotu egiten da pertsonen beraienak sentitzen dituzten denboraren eta espazioen beharra; nahiago izaten dute parekoekin egotea, eta denbora eta espazio horiek etxeko eta eskolakoetatik bereiztea.

NZk aukera egonkorra izan nahi du denbora eta espazio horietarako, edo, gutxienez, horien zati baterako; proposamen hori nerabezaroan aurrera egin ahala egokitu ohi da.

NZk aukera ematen du pertsona helduak hurbil izateko eta haien errespetua sentitzeko, eta horrek nerabezaroan egin ohi diren ahaleginak eta saiaketak errazten eta babesten ditu.

### 1.3 GAZTERIA ZERBITZUEN JARDUERA-ARLOAK

Haurren, nerabeen eta gazteen beharren etengabeko azterketan oinarrituta, gazteria zerbitzuek behar horiei erantzuteko jarduera-arloak eskaintzen dizkiete zuzenean beren hartzaileei.

- Informazioa
- Orientazioa
- Bide-laguntza
- Aisia hezitzailea
- Adierazpenerako eta partaidetzarako bideak
- Sorkuntzarako eta produkziarako bideak

Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistemaren diseinuaren bitartez, jarduera-arlo horietara hurbiltzeko modua zehazten ari dira.

Diseinu hori Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatu du, Gipuzkoako Udalekin eta beste erakunde batzuekin batera; proposamen horiek garatzen diren heinean, hainbat doikuntza egin beharko dira udal-zerbitzuak ulertu eta garatzeko moduan, behar diren egokitzapenak eginez.

NZk elkarreragin zuzena izango du hartzaileekin eta, horrez gain, beste esparru, sistema edo politika batzuekin sarean lan egiteko dinamikak bultzatuko ditu, aipatutako horiek nerabeek emantzipatzeko prozesurako eta nerabeek beren eskubideez gozatzeko duten eskubiderako garrantzitsuak badira; beti ere, nerabeek parte-hartze aktiboa izango dute dinamika horietan.

NZren jarduera-arloen edukia honako hau izango litzateke:

- 1.3.1 Informazioa:** funtsezko tresna da nerabeek esparru edo sistema guztietan (kultura, enplegua, osasuna, gizarte-zerbitzuak...) eskura dituzten baliabideak eta aukerak errazago eskura ditzaten. Eskaintako informazioak baliagarria, eraginkorra eta esanguratsua izan behar du, eta ondo antolatuta egon behar du, nerabeari interesatzen zaizkion jakintza-gaiari arabera.
- 1.3.2 Orientazioa:** nerabeen bizitzako esparru ezberdinetan garatzeko dituzten aukerak ezagutzeko eta erabakiak hartu ahal izateko laguntza da orientazioa. Aukerak ezagutu, irtenbideak identifikatu eta erabakiak hartzen lagundu. Zenbaitetan, nerabea beste eragile edo erakunde batera bideratuko da, haren beharrari hobeto erantzungo diolakoan.
- 1.3.3 Bide-laguntza (akonpainamendua):** bide-laguntzak eta horren jarraipenak nolabaiteko egonkortasuna eta jarraitutasuna ematen die nerabeen erabakiak hartzeko, baliabideak erabiltzeko, jarduerak egiteko, aukerak bereizteko eta loturak eratzekeo garaian. Bide-laguntzak

beharrezkoa du pertsonen arteko harreman interaktiboa, zuzena eta presentziala, eta norbanakoaren konfiantzan oinarritzen da, baina taldean ere gauza daiteke.

**1.3.4 Aisia hezitzailea:** nerabeen astialdian ondo pasatzeko eta atsegina hartzeko izateaz gain, esku-hartze horrek ageriko hezkuntza-helburuak lortu nahi ditu, hau da, nerabeek bizitzarako gaitasunak, jarrerak eta balioak gara ditzaten lortu nahi da.

**1.3.5 Adierazpenerako eta partaidetzarako bideak:** ekintza-arlo honekin egiazko aukerak sortu eta dinamizatu nahi dira: nerabeek iritziak eman ditzaten, proposamenak egin ditzaten eta, aldi berean, erabakiak eta erantzukizunak har ditzaten, kudeatzeko edo kudeatzen laguntzeko aukera izan dezaten, NZan nahiz beren bizitzetako beste alberdi garrantzitsu batzuetan (kultura, hezkuntza, kirola, osasuna, e.a) kontrola izan dezaten.

Ildo horretatik, partehartze prozesua landu nahian, zerbitzu honek nerabeen partehartzea sustatuko du bere barne funtzionamenduan honako esparruetan:

- Zerbitzuaren eskaintza eta planifikazioa (programazioa, barne funtzionamendurako arauak,...), batzorde espezifikoeetan parte hartuz edo informalki.
- Jarduerak: erantzukizun konkretuak hartuz
- Ebaluazioa: aktiboki kolaboratuz, adosten diren ardura eta maiztasunekin

Nerabeek gaur egun jokatzeko eta komunikatzeko erabiltzen duten sistema kontuan izanik, beharrezkoa da NZan teknologia berriak erabiltzea lan-tresna gisa.

**1.3.6 Sorkuntzarako eta produkziarako bideak:** Udalerriko baliabideak erabiliz, NZk egiazko aukerak sortuko eta dinamizatuko ditu nerabeek beren sormena eta produkziarako gaitasuna sustatuko eta bideratuko dituzten jarduerak eta proiektuak garatzeko eta ikusarazteko aukera izan dezaten. Banakako nahiz taldeko askotariko jarduerak, nerabeen interesa piztu dezaketenak, garatzea, bultzatzea, da helburua.

## 1.4 ZEHARKAKO LERROAK

Ordiziako Gazteria Politikak hiru zehar lerro finkatu ditu, zeharkakoak dira zerbitzuan garatutako jarduera guztietan egon behar duten lan lerroak:

- Hizkuntza- normalizazioa: euskaraz hazi eta hezi
- Emakumezkoen eta Gizonezkoen arteko aukera berdintasuna.
- Inklusioa: etorkinak, aniztasun funtzionala duten nerabeak, baztertzeko arriskuan dauden kolektiboetako nerabeak eta abar.

Zeharkako lerroak garatzeko estrategiak abiaraziko dira ikasturte bakoitzean, jarraian azaltzen diren irizpideak kontuan hartuz:

### 1.4.1 EUSKARA:

Euskara izango da NZko hizkuntza, bai laneko hizkuntza moduan (harremanerarako, koordinaziorako, antolatzeke,..) eta baita hartzaileei egingo zaien zuzeneko harreran ere. Horretarako beharrezko diren baldintza guztiak bermatuko dira: hezitzaile euskaldunak, euskarazko materiala, erabilera sustatzeko planifikazio lana,..Ekipamendu eta erabiltzaile bakoitzaren hizkuntza errealitatea kontuan hartuta, planak eta estrategiak implementatuko dira euskararen erabilera sustatzeko, euskararen aldeko jarrerak bultzatzeko eta euskal kultura ezagutzera emateko.

Zerbitzua emateko orduan, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) , Euskararen erabilera sustatzeko plana eta indarrean dagoen Ordiziako Udaleko Euskararen Ordenantza errespetatuko dira.

NZk Udaleko Euskara zerbitzuarekin koordinatuta egingo du lan.

#### 1.4.1.1. Hizkuntza gaitasuna:

Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila egiaztatu beharko dute lan-taldeko hiru kidek.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonak badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna.

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeke honako bidea erabili ahal izango da:

1. Zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako hizkuntza gaitasuna dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztea .

Lan-taldeko hiru kidek, 3. hizkuntza eskakizuna, EGA titulua edo horien baliokidea izan beharko dute.

Subrogazio kasuetan, langileek eskatutako hizkuntza-gaitasuna bete beharko dute, kontratua euskaraz gauzatu ahal izateko, beharrezko neurriak adostuko dira herritarren eta bezeroen hizkuntza eskubideak bermatze aldera.

#### 1.4.1.2 Hizkuntza paisaia:

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan.

Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean.

Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere administrazioarekin aldeztu aurretik adostuta.

### 1.4.1.3 Erabilera herritarrekin:

Zerbitzuaren erabiltzaileari harrera eta erantzuna administrazioari eskatzen zaizkion hizkuntza baldintza berdinetan egingo dira.

Administrazioak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz, herritarrekin ahozko harremana (lehen hitza, telefonoz, erantzungailuan, aurrez aurrekoan, bozgorailutik, bileretan...) euskaraz egingo da.

Modu berean, era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak (inprimakiak, oharra, abisuak, ordutegiak, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak...) euskaraz egingo dira. Herritarrak eskatzen duenean, euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, euskarazkoari lehentasuna emanez.

Euskarazko testuen kalitatea ziurtatzeko, zabalpen handiko testuak edota behin eta berriz erabiltzekoak administrazioko Euskara Zerbitzura eramango dira.

### 1.4.1.4. Erabilera Administrazioarekin:

Kontratu egileak aukera izango du kontratu mota honen bidez sortzen diren ahozko zein idatzizko komunikazio mota guztiak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsultak...) euskaraz eskatzeko esleipendunari.

## 1.4.2 GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO AUKERA BERDINTASUNA:

Berdintasunaren eta parekidetasunaren ikuspegia kontuan hartu beharreko zeharkako lerroa izango da. Nerabeen Zerbitzuaren enfokeak desberdintasun egoerari erreparatu behar dio, eta arlo horretan ere nagusi den ikuspegi androzentrikoa bazter utzi; arauak, jolasak, denbora eta lekuen erabilera, materialak, erabakiak hartzeko prozesuak eta abar.

Zerbitzua kudeatzerakoan kontuan hartuko diren ildo estrategikoak honakoak izango dira:

- Gazteen ahalduntze prozesuetan nesken ahalduntzea eta euren partaidetza aktiboa ziurtatzea (parekotasuna)
- Aukera Berdintasunaren aldeko baloreak bultzatzea – (balioen aldaketa, erantzunkidetasuna, bateragarritasuna)
- Ekintza Positiboa berdintasuna lortzeko tresna gisa erabiltzea
- Emakume gazteen aurkako indarkeria prebenitzea

### 1.4.2.1 Genero ikuspegia plangintzaren fase guztietan

Berebiziko garrantzia izango du NZaren plangintzaren fase guztietan genero ikuspegia txertatzea:

- Diagnostikoa egiterakoan
- Programa diseinatzerakoan
- Plangintza inplementatzerakoan
- Ebaluazioa egiterakoan.

Horrez gain, eskuhartze hezitzailean, eskaintza osatzerakoan, eztabaida eta erabakitze guneetan, espazioa eta denbora banatzerakoan, komunikazioan, aurrekontuetan, formazio planetan eta ekipamenduen eta baliabideen antolaketan ere genero ikuspegia txertatzea ezinbestekoa izango da.

#### **1.4.2.2 Aukera Berdintasunaren printzipioa**

Neskak eta mutilen beharrak, interesak, gogoak eta espektatibak ez dira berak, eta zentzu horretan, neska-mutilen ezaugarriak, interesak, nahiak, beharrak, jarrerak eta bestelakoak gertutik ezagutzeko etengabeko lana egingo da, nerabea ez baita neutroa, generoa du. Horrela, eskaintza osatzeko orduan horrek neskengan eta mutilengan izango duen eragina aztertuko da aldeaz aurretik, eta bide beretik, ebaluazio txostenean genero inpaktua neurtuko da.

Antolatzen diren ekintzeei dagokienez, aukera berdintasuna bermatuko dute. Horrez gain, emakumeen aurkako indarkeria saihestu, generoan oinarri duten ohizko rolak hautsi eta tratatu onak eta osasungarriak bultzatzeko lan egingo da. Esan bezala, neskeen eta mutilen partaidetza parekatua sustatzea ezinbestekoa izango da, bai ekintzak gauzatzerakoan eta baita horiek erabakitze guneetan ere. Ildo horretatik, aurrekontuan atal bat bereiztuko da parekidetasuna bultzatzeko ekintzak antolatzeko.

Espazioaren eta baliabideen erabilerari eta banaketari dagokienez ere, aukera berdintasunaren printzipioa oso kontuan izango da. Gunea gazteen arteko harremanetarako eta elkarrizketarako tokia izango da eta berdintasuna oinarri duten hartu emanak sustatuko dira, espazio, denbora eta baliabideen banaketa parekatua sustatuz. Hezkidetzak izango da materialen ardatz nagusia.

Bestalde, kanpoko kontratazioak egiten direnean, langileek aipatu eskakizunak bete beharko dituzte, hau da, genero ikuspegitik abiatuta lan egitea eta aukera berdintasuna sustatzeko baloreak bere egitea.

#### **1.4.2.3 Berdintasunarekin lotutako oinarrizko legedia eta materiala**

Zerbitzua emateko orduan II. Berdintasun Planari erreparatuko zaio. Era berean, Udaleko urteko kontzientziazio kanpainei eutsiko zaie, Berdintasun sailarekin koordinazioa eta elkarlana sustatuz.

Halaber, gunean abiatutako plangintzak berdintasunaren arloan EAEn garatutako araudiarekin eta plangintzekin bat etorri behar du.

Hortaz, zerbitzuaren kudeaketan jarraian aipatutako oinarrizko legediari eta materialari erreparatuko zaio etengabe:



- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 legea, otsailaren 18a
- Gipuzkoako nerabeentzako ekipamenduetan (Gaztelekuak) genero ikuspegia barneratzeko oinarritzko gida
- EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako V plana
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako II Foru Plana

#### 1.4.2.4 Zerbitzuaren lan-lerroak

Aurrean aipatutako guztia aintzat hartuta honakoak izango dira zerbitzuaren lan-lerro nagusiak:

- Nerabeen Zerbitzuan bildutako datu guztiak generoka sailkatuko dira sistematikoki, gero generoka aztertzeke aukera izateko
- Zerbitzuan eta bertan sortutako argitalpen, iragarki, kartel, sare-sozialetan eta abarretan generoen errepresentazio orekatua islatuko da eta ez da hizkuntza sexistarik ez estereotipatutako irudirik erabiliko
- Berdintasuna ardatz duten harremanak bultzatuko dira
- Erantzukizuna eta zaintza denen kontua direla sustatuko da
- Genero-bretxak (digitala, kulturgintzan, kirol arloan...) eta jakintzaren esparruan dauden ezberdintasunekin bukatzeko lan egingo da
- Neskek eszenatoki sozialetan egoteko duten aukera handitzeko eta taldean antolatutako jardueretan protagonismo gehiago izateko zubiak eraikiko dira, beharrezkoak diren jardueretan
- Talde mistoak bultzatuko dira generoen arteko harremanak sendotzeko
- Erabaki kolektiboak hartu behar direnean, bi generoen parte hartzea bermatuko da maila berean
- Espazio eta denboraren erabilera eta partaidetza parekidea ahalbidetuko dira
- Genero-indarkeriaren aurkako praktika onak abiatuko dira
- Indibidualitatearekiko errespetua ardatz duten harreman afektiboak sustatuko dira
- Sexualitatea era zabalean islatuko da eta sexu-aukera guztiak errespetatuko dira
- Sexualitatearekin lotutako gaiak lantzerakoan emakumeen ugaltze eta sexu eskubideak betearazteko bitartekoak jarriko dira, herriko baliabideak erabiliko dira
- Pertsonen garapen osoa sustatuko da
- Maskulinitate eta feminitate eredu berriak eta osasungarriagoak sustatuko dira
- Jarrera homofoboak, lesbofoboak, transfoboak, xenofoboak eta arrazistak ez dira onartuko

#### 1.4.3 INKLUSIOA:

Nerabeen artean dagoen aniztasuna kontuan hartuta, zerbitzuak arreta berezia eskainiko die premia bereziak dituzten pertsonen (gizartean zailtasunak dituztenak, urritasun fisiko, psikiko edo zentzumenezkoak, jarrera arriskutsuak dituztenak,...)

Zehar-lerro honen garapena ondoko hauekiko elkarlana sustatuko da: Udaleko Gizarte zerbitzuak, Prebentzio saila, Kale hezitzaileak, Berritzegune, ikastetxeak, Udaltzaingoa, e.a

NZk Udaleko Gizarte zerbitzuen sailarekin koordinazioan lan egingo du, inklusioa sustatu ahal izateko.

### **1.5 IRIZPIDE ETA PRINTZIPIOAK:**

Gazteria Politikaren ikuspegia eta zerbitzuen ikuspegia markatuko duten irizpide eta printzipioak honako hauek dira:

- Haurrak eta gazteak sustatzeko politikaren izaera sektoriala eta espezifikoa nahiz zeharkakoa eta integrala.
- Berdintasuna, ekitatea eta aniztasuna.
- Erantzukizun publikoa eta gizarte mailako parte-hartzea.
- Koordinazioa eta sare-lana
- Proaktibitatea, hurbiltasuna, pertsonalizazioa, jarraipena eta prebentzioa.
- Jakintzan oinarritutako kalitatezko esku-hartzea.

## **BIGARRENA: KONTRATUAREN HELBURUA**

### **2.1 ZERBITZUAREN HELBURU OROKORRA**

Kontratuaren xedea honako hau da: Ordiziako Udalean Nerabeentzako Zerbitzua (Gazte Lokala) planifikatzea, arduratzea eta kudeatzea, agiri honetan ezarritakoarekin bat etorrira eta Gazteria saileko jarraibideak kontuan hartuta. Gizarte eta heziketa zerbitzua da, zeharkako kudeaketa erregimenean emanda.

NZk Gazte Lokala erabiliko du lanerako ekipamendu gisa. Lukusain plazan (10-11 zenbakietan) dago; hala ere, nerabeak elkartzen diren beste toki batzuk ere izango ditu kontuan, hala nola, kalea, nerabe taldeek kudeatzen dituzten lokalak, baita gizarte-sareak ere.

Ondoko irizpide hauen arabera zehaztu dezakegu NZ:

\*Gizarte-hezkuntzako zerbitzu publikoa da, doakoa eta eskuragarria; 12 eta 17 urte arteko nerabeei zuzendutakoa da.

\*NZ haur, gazte eta nerabeei zuzendutako arretaren tokiko sarearen barnean tokatzen da. Modu berean, sare horretan koherentea izan behar du, eta modu koordinatuan lan egin behar du.

\*NZren eskaintza zerbitzu horrek arreta eskaintzen dien nerabeen beharretan eta eskaeretan oinarritzen da. Nerabeen interesek eta proposamenek osatuko dute programazioa. Horrez gain, alde aurretik zehaztuta dauden helburuak lortzeko hezitzaileen taldeak zerbitzurako ezarriko dituen proiektuak ere sartuko dira programazioan.



\*Gazteria Politikaren 6 ekintza-ildoak garatzeko espazioa da NZ. Ildo horien artean aisia hezitzaileak, bide-laguntzak eta adierazpenerako eta partaidetzarako bideek izango dute lehentasuna.

\*NZren jarduerak azpiegituren barruan nahiz aire zabalean egingo dira.

\*NZk nerabei zuzendutako edo haientzat interesgarriak izan daitezkeen zerbitzu, programa eta ekipamenduetara hurbiltzeko estrategiak abiaraziko ditu, udalerrian nahiz inguruetan, batez ere, gizarte-integratioko edo inklusioko estrategiak bereziki bultzatuko ditu gizartean baztertuta gelditzeko arriskua duten nerabeei zuzenduta.

\*Tresna eraldatzailea, orekatzailea, integratzailea eta hezitzailea da, baita parte-hartzean era aukeretan oinarritutako espazio komunitarioa ere.

## **2.2. ORDIZIAKO NERABEENTZAKO ZERBITZUAREN HELBURU IRAUNKORRAK:**

\_ Aisialdiaz gozatzea modu aktibo, parte-hartzaile, sortzaile eta osasungarrian eta ongizate emozionala sustatzea.

\_ Autonomia eta bere burua antolatze eta kudeatzeko gaitasuna eskuratzea. Bizitzaren ardatza nagusietako bat zaintza dela kontuan hartuta, eguneroko bizitzako jardura gehienak (baita aisialdian ere) era autonomo batean egiteko gaitasuna barneratzea, pertsona helduen laguntzarik gabe. Hau da, bizitzarako trebezia, gaitasun eta jarrera baliagarriak garatzea.

\_ Jardura guztietan kritikotasun positiboa bultzatzea, egiten denaren gainean hausnarketa ahalbideratuz, eta genero ikuspegia kontuan izanik.

\_ Adin berekoekin lotura egonkorrak eta atseginak, aberasgarriak eta eredarriak eraikitzen laguntzea, neskeen eta mutilen arteko tratu onak sustatuz, eta indarkeria jarrerak alde batera utzita.

\_ Hizkuntza normalizazioa bultzatea, euskararen erabileran nahiz euskal nortasun eta kultura sustatzea.

\_ Neska eta mutilen arteko aukera berdintasuna bermatzea, euren gaitasun pertsonalak garatzea eta erabakiak hartzeko orduan, generoan oinarri duten ohiko rolek ezarritako mugak desagertzeko bidean urrats sendoak emanez.

\_ Gizartean integratzeko gaitasuna garatzea

\_ Bizikidetasuna eta errespetua balio gisa sustatzea, kultura artekotasunari arreta berezia eskaintzea. Balore positiboak sustatzea: elkarbizitza, zaintza arduratsua, lankidetasuna, solidaritatea, konpromisoa, erantzukizuna, ardura, autonomia, tolerantzia eta aintzatasuna, besteak beste.

\_ Herriko nerabeen beharrak antzematea eta nerabeen eskubideak zaintzea, beti ere kontuan hartuta beharrak, interesak eta espektatibak ez direla berak nesken eta mutilen artean.

### **2.3 NERABEENTZAKO ZERBITZUAREN HELBURU ZEHATZAK:**

Hauek dira NZren bereziazko helburuak:

- Nerabeentzako zerbitzua koadrilla eta nerabe ezberdinen arteko topagune komunitarioa izatea sustatu.

\_ Nerabeentzako zerbitzua nerabeentzat eta lagun talde guztientzat topaleku euskalduna izatea. Zeregin honetan euskararen erabilera bultzatzea.

\_ Nesken eta mutilen arteko parekotasuna eta aukera berdintasuna bultzatzen dituen topalekua izatea, tratu onak sustatzea eta genero indarkeria desagertarazteko urrats sendoak ematea.

\_ Elkarbizitza eta errespetu balioak sustatzea. Euskal nortasunari eta kultura arteko eta ingurumenarekiko errespetuari arreta berezia eskaintzea.

-Neska-mutilei zaletasunak bultzatu, sormena landu, ekimenak bideratu, esperimentatu eta proiektuak bideratzeko aukera ematea. Baita horien trebeziak garatzea, beren adinekoekin eztabaidatzeko, iritziak emateko, erabakiak hartzeko eta nork bere burua antolatzeko.

\_ Udalerrian parte-hartze aktiboa bultzatzea, zerbitzuaren antolaketan eta sortuko diren arazoei konponbideak bilatzea, guztion intereseko jarduerak garatzeko eta udaleko gainerako eragileekin koordinatuta lan egiteko (herriko jaietan, ekintza puntualetan...)

\_ Arriskuak kudeatzeko baliabideak eskaintzea, nesken eta mutilen berezitasunei erreparatuta. Prebentzio orokorra lantzea, ohituta osasungarriak sustatzea hainbat eremutan: afektibitatea, elikadura, kontsumoa, jarduera fisikoa, giza-harremanak, besteak beste.

\_ Herriko Gazte Informazio zerbitzuarekin koordinatua izatea, nerabeek informazio eta orientazio arloetan dituzten beharrei erantzuteko.

\_ Nerabeen hezkuntza-prozesuetan laguntzea, estereotiporik gabeko erreferente egonkorrak eta hurbilak eskainiz.

\_ Erabiltzaile guztien elkarbizitza kudeatzea eta belaunaldien arteko bizikidetzaren bultzatzea.

\_ Lokalean, kalean nahiz gizarte-saretan burutu beharreko lanaren plangintza egitea, genero ikuspegia aintzat hartuta, guztiak nerabeen topalekuak baitira.

\_ NZ nerabeentzako erreferentea izatea.

\_ NZ trantsizioak landuko diren tokia izatea.

### **Gazte Informazio Bulegoa**

- Hezitzaileak genero estereotiporik gabekoak izanik, nerabeentzako erreferente egonkorak eta hurbilak izango dira.

## **HIRUGARRENA: ZERBITZUAREN HARTZAILE DIREN PERTSONAK**

Zerbitzu honen hartzaile zuzenak Ordiziako 12 eta 17 urte arteko (DBH-DBHO) nerabe guztientzat eskainiko da, Ordiziarrak eta Ordiziako ikastetxeetako nerabeak.

Adin-tarte bakoitzaren arabera (12-15 urte eta 16-17 urte) proposamen berezia egingo da, neska-mutilen beharrei eta ezaugarriari erantzuteko.

Erabiltzaileen aniztasuna bilatuko da, ez bakarrik adinari dagokionez, baizik eta jatorriari, ikas-zentroari eta sexu-aukerari dagokionez ere.

Behin herriaren premia beteta, zerbitzu horietako edozeinetan beste udalerrri batzuetako nerabeen premia onartzea aztertuko da.

Horren gain, zuzenean zerbitzuaren erabiltzaile izan ez arren, zeharkako hartzailetzat hartuko dira nerabeen heziketaz arduratzen diren pertsona helduak: gurasoak, hezitzaileak, irakasleak,...

Zerbitzuaren hartzaileek, finkatutako helburuei eta eskainitako programari jarraituz, eskubidea dute zerbitzua behar bezala eta modu eraginkorrean jasotzeko. Era berean, hartzaileek beren eskura jarritako ekipamendua eta materiala helburuaren arabera errespetatu eta erabiltzeko betebeharra dute.

## **LAUGARRENA: ZERBITZUAREN KUDEAKETA**

Udalak finkatutako helburuak lortzera bideratuko da Zerbitzuaren kudeaketa.

Zerbitzuaren arduradun nagusia Ordiziako Gazteria saila da; zehazki, Gazteria saileko zinegotzia eta udal teknikaria. Koordinazio mailan zerbitzuaren esleipena duen enpresaren arduraduna eta hezitzaile taldeko koordinatzailea izango dira.

Beste udal sailtako (Berdintasuna, Kultura, Euskara, Kirola,...) partehartzea sustatuko da.

Esleipendunak udal-arduradunek agindutako orientabide eta arauak bete beharko dituzte. Orientabide horiek baldintza teknikoek plegu honetan adierazten dira, bai Gazteria saileko misioari eta jarraitu beharreko irizpide, printzipio eta zeharkako ildoei dagokienez eta baita zerbitzu-mota eta esku-hartze eremuei dagokienez ere.

Metodologiaren ikuspegitik Nerabeentzako Zerbitzu honen eginkizunak esku-hartze kolektiboko eta pertsonalizatuko proiektuak ditu oinarri, beti ere nerabeek gero eta konpromiso finkoagoak eta erantzukizun konplexuagoak hartzea helburu izanik.

Zerbitzuen kudeaketan bi esparru nagusi bereizten dira, alde batetik zuzeneko arreta, hau da, erabiltzaileekin garatu beharreko lanketa, eta, beste aldetik, barne-lanak: planifikazioa, koordinazioa, ebaluazioa, prestakuntza, e.a....

#### 4.1 ARRETA ZUZENA ETA LAN-METODOLOGIA:

Zerbitzuak dokumentu honen hasieran aipatzen diren sei esku-hartze mota edo ekintza-eremuak eskaintzen ditu bertako erabiltzaileentzat. Sei esku-hartze ildo horiek dira zerbitzuan planteatzen diren helburuak lortzeko tresnak edo erremintak.

Edozein kasutan, adin-tarte ezberdinak aintzat hartuz eta adinaren arabera eta generoaren arabera hartzaileen ezaugarriak aldatu egiten dira. Nerabeentzako zerbitzuaren kasuan, esaterako, aisialdi hezigarria esku-hartze eremua garrantzitsua bada ere, “bide laguntza”rekin eta “gazteen adierazkortasun eta parte-hartzeko” bideekin lotutako ekimenei indar gehiago edota lehentasuna emango diegu nerabeentzako zerbitzuan.

Gazte Lokala izango da nerabeei arreta emateko gune nagusia, baina nerabeek bere egiten dituzten espazioetan lantzeko dinamikak ere sustatuko dira, hau da, kalean, beren espazioetan edo lokaletan eta gizarte- sareetan. Era berean, zerbitzu honek gainerako udal ekipamenduak erabiliz, hau da, kultur etxea, kiroldegia, frontoiak, aretoak, zinema, kalean, ..., hainbat ekintza proposatu ahalko dira.

Nerabeek, lokal honen martxan parte hartzeko modu ezberdinak sustatuko dira. Alde batetik, izena eta logotipoa aukeratuz, eta bestetik, egokitzapeneko lan batzuetan aktiboki parte hartuz, hala nola lortu beharreko materialak aukeratuz edo gainazalak margotuz.

Arreta zerbitzua honen xede diren nerabeak askotarikoak izango dira: Lokalera joaten direnak, joan behar luketenak baina joaten ez direnak, behar puntualak edo bereziak dituztenak (banaka nahiz taldeka), e.a.

Ordiziako Gazteria Politikaren arloak landuko dira zerbitzuan, hala ere, plangintzan kontuan hartuko da erabiltzaileek nahi dutena egiteko uneak izatea. Eskaeren eta beharren etengabeko azterketa izango da programazioaren oinarria.

Harreman hezitzailea ezinbesteko tresna izango da eskaintza antolatzerakoan, bai hezitzailearen eta erabiltzailearen artekoa, baita erabiltzaileen artekoa ere.

Besteak beste eskaintzak honako hauek hartuko ditu barne: antolatu gabeko jarduerak, antolatutako jarduerak, tailerrak, ikastaroak, proiektzioak, ikuskizunak, hitzaldiak, irteerak, herriko ekimenerako partaidetza, parte-hartzearekin lotutako sentiberatze-jarduerak, proposamenak egiteko bideak, batzarrak eta bilerak,...

Metodologia kontuan hartuz, funtsezkoa izango da nerabeek gero eta gehiago parte hartzea NZn, egingo diren proiektuak programatzeko lanetan eta haiek garatzerakoan eta ebaluatzerakoan, horrela eginez gero, konpromiso iraunkorrakoak eta erantzukizun konplexuagoak hartuko dituzte beren gain.

Erabiltzaileekin batera, parte hartzeko espazioak eta edukiak zehaztuko dira; horretarako, erabiltzaileen ezaugarriak eta berezitasunak hartuko dira kontuan, baita aurretik mugak zehaztuko dira (ordutegiak, muga ekonomikoak,...).

Erabakitzeko irizpideak argiak eta ezagunak izango dira; nerabeekin adostuko dira itzultzeko moduak eta uneak.

Nerabeak herritar aktibo bihur daitezzen zenbait urrats emango dira, gizartean parte har dezaten eta gizartean jarrera arduratsuak har ditzaten; taldeko jarduerak bultzatuz (gizartean proiektzioa duten ekimenak direnean) edo gizartean jarrera arduratsuak hartzeko jarduerak eginez (kontsumo arduratsua, birziklatzea,...)

Harremani dagokionez, funtsezkoa da profesionalak nerabeen esparru berezia errespetatzea, beti ere, hurbiltasuna eta enpatia eskainiz eta haientzako erreferentzia-izateaz arduratuz.

Erabiltzaileen arteko harremani dagokionez, bizikidetzarako arauak zerbitzuaren nerabeekin batera landuko, eztabaidatuko eta adostuko dira.

Euskara izango da arreta-hizkuntza eta lan-hizkuntza, zehar-lerroan aipatu dugun moduan. Eta parekidetasuna bultzatuko da une guztietan.

## 4.2 BARNE-LANA

Aurreko atalean zuzeneko arretarekin zerikusi zuzena duten aipatutako jardueraz gain, NZk, derrigorrez, ondorengo zereginak garatuko ditu:

### 4.2.1 Plangintza

Planifikazio-prozesuaren bidez, aurrekari jakin batzuetatik abiatuz (ebaluazioak, legeria, Gazteria Saileko plangintza, erabiltzaileek egindako proposamen eta baliospenak, etab.) lortu nahi diren helburuak ezartzeko eta haiek erdiesteko erabakiak hartzen dira.

Plangintzan helburuak ez ezik, zerbitzuan garatuko diren jarduerak barneratuko dira (zuzeneko arreta, programazioak, barne-lanketak, e.a).

Urteko planak eta plangintza espezifikoak burutuko dira, bai zuzeneko arretarekin lotuta eta baita kudeaketarako jarduerekin lotuta ere.

Hiru planifikazio mota landuko dira: ikasturtekoa, hiru hilabetekoa eta hilekoa eta planifikazioa eta programazioa adin tartearen banaketa kontuan izango dira.

Arreta berezia jarriko da jardueren programazioan eta plangintzaren eta erabakiak hartzeko prozesuaren izaera partaidetzakoa izatean. Nerabezaroaren azken fasean, horiek tokiko beste ekimen batzuetan inplikatzeko bultzatuko da (ageriko jarduerak antolatzea, e.a)

Fase guztietan generoak duen eragina oso kontuan izango da.

### 4.2.2 Zerbitzua ebaluatzea

Zerbitzuari eta inguruneari buruz informazioa lortzeko eta prozesatzeko egingo den guztia barne hartuko duen prozesua da ebaluazioa. Informazioa horren helburua jarduera-ziklo berri bati aurre egiteko deskribapenak, azterketak eta balioespenak lortzea da. Nerabeen parte-hartzea funtsezkoa izango da zerbitzuaren ebaluazioa

egiteko. Gutxienez, honako alberdi hauek aztertuko ditu: beharrak eta baliabideak, jarduerak, emaitzak eta eragina eta helburuen betetze maila.

Zerbitzuaren ebaluazioak hartzaileen asetasun maila ere neurtuko du, eta maila hori hobetzeko metodoak eta prozedurak proposatuko ditu.

Ebaluazioa etengabea eta integratua izango da, eta kontuan izango ditu Udalak zehaztutako irizpideak. Hiru ebaluazio mota landuko dira: ikasturtekoa, hiru hilekoa eta hilekoa. Ebaluazio prozesu guztietan generoak duen eragina aztertuko da.

Hiru hilabete behin ebaluazio-txostenak aurkeztuko dira Udalean eta egin beharreko balioespena egin ondoren, denon artean aztertuko dira hurrengo hiru hilabetekorako proposamenak.

Txostenan, asteburuetan egindako ebaluazio fitxen laburpena azalduko dute hezitzaileek, honez gain, gauzatu diren ekintzak, egin ez direnak eta horien ondorioak eta azterketa eginez.

Ebaluazioaren urteko txostena ikasturte bukaeran aurkeztuko da. Txosten horretan, zerbitzua garatzeko datuez eta zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko datuez gain, hobetzeko proposamenak jasoko dira.

Esandako guztia kontuan hartuta, beharrezkoa izango da zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko datuak jasotzea: datu kuantitatiboak (estatistikoak, asistentzia-erregistroa, jardueretako parte-hartze datuak adinaren eta sexuaren arabera, hizkuntzaren erabilera, espazioen erabilera, jarraipen fitxak, e.a) eta datu kualitatiboak (asetasun maila, parte hartzeko moduak,..)

Alor ekonomikoaren jarraipena egingo du Udal teknikariak, hileroko zerbitzuak garatutako ekintzen eta erosketen gastuen balantzea aurkeztuko da, dagozkien ziurtagiriekin. Datu ekonomikoetan egindako orduen gastua zehaztuko da: arreta zuzena nahiz koordinazio, formazio saioretakoak ere bai.

#### 4.2.3 Koordinazioa eta difusioa

Koordinazioaz hitz egiten dugunean, ondorengo alderdiei buruz ari gara:

- **Barne koordinazioa:** hezitzaile taldeko kide guztiak astean behin bilduko dira zerbitzuaren jarraipena egiteko. Barne-komunikazioari arreta berezia eskainiko zaio, zerbitzuko langile guztiek zerbitzuan kokatzeko eta lan egiteko beharrezko informazioa helaraziz. Hezitzaileen arteko koordinazio bileretan landutako gaiak akta batean jasoko dira. Koordinatzaileak egindako akta Udaleko gazteria saileko teknikariari helaraziko dio. Hezitzaileek Gazte Lokaleko baliabideak (bulegoa, interneta, Wiffi, telefonoa,...) erabiliko dituzte zerbitzua kudeatzeko. Lokalean sartzeko eta irteteko Udalak jarritako txartel sistema erabiliko dute hezitzaileek, kurtso hasieran bi giltza helaraziko



zaizkie. Lokala erabiltzen duten bakoitzean (sartzeko nahiz irtetzeko) txartelaren erregistroa egin beharko dute.

- **Udalarekiko koordinazioa:** zerbitzuaren jarraipenerako protokoloa eginez, unearen arabera bitarteko ezberdinak planteatzen dira. Udaletxera asteroko jarraipen-fitxak eta hiruhileroko nahiz urteko ebaluazioak bidaltzeaz gain, bi eratako bilkurak planteatzen dira

1.-Zerbitzuaren jarraipenerako hileroko bilkurak, zerbitzuko koordinatzailea eta Gazteria Saileko udal-teknikaria bertaratuko dira. Beharren arabera, Udaleko beste sail batzuekin ere bilduko dira.

2.- Zerbitzu bakoitzaren ebaluaziorako eta haien arteko koordinaziorako hiruhileroko bilkurak, koordinatzaileak eta Gazteria Saileko teknikaria bertaratuko dira.

Zerbitzuaren kudeaketaren hasieran (urrian) eta ikasturte bukaerako ebaluazioan (ekainean) gazteria saileko zinegotzia, udal teknikaria eta hezitzaile taldeko koordinatzailea bilduko dira.

- **Beste zerbitzu batzuekiko koordinazioa:** herrian edo eskualdean adin-tarte berberarekin lan egiten duten beste zerbitzu eta erakunde batzuekin koordinatzeko sistema bat zehaztuko da, maiztasun batekin eta helburu jakin batzuekin.
- **Beste eragile batzuekiko koordinazioa:** nerabeekin harremana duten eragileekiko koordinazioa bultzatuko da, baita zerbitzuan egiten den lanerako interesgarriak izan daitezkeen beste eragile batzuekiko harremanak ere: herriko kultur, kirol, gazte eta aisialdi taldeak, kale hezitzaileak, herriko ikastetxeak,...

NZk arreta berezia eskainiko dio familiekin harremana izateari eta ingurunean egon daitezkeen beste eremu batzuetako agente edo zerbitzuekin lankidetzaz edo sare-lana izateari.

**Zerbitzuaren difusioari dagokionez,** enpresa esleipendunaren ardura izango da, zerbitzuaren zentrua nahiz zerbitzuan garatuko diren jarduerak eta zereginak hartzaileengana (12 eta 17 urte bitarteko nerabe guztiak) nahiz gainerako herritarrengana iritsi daitezzen.

Kanpaina hauen helburua, nerabeen aldetik Zerbitzuaren erabilera sustatzea izango da, eta, orokorrean, Zerbitzuari buruzko informazioa ematea da.

#### 4.2.4 Ezagutzaren kudeaketa: etengabeko prestakuntza

Enpresaren erantzukizuna izango da langileen prestakuntza. Udalak, bere aldetik, interesgarria izan daitezkeen informazioaren berri emango dio enpresari.

Zerbitzuko langileak formazio iraunkorreko prozesuetan murgilduta izango dira; batez ere, lurraldean antzeko zerbitzuetan garatzen ari diren dinamiken berri jasoko dute.

Bestalde, eguneroko esperientziatik ezagutzak aterako dituzte, zerbitzua hobetzeko bidean.

Etengabeko prestakuntza planteatzeko modu asko egon daitezke, adibidez: aholkularitza eta jarraipen teknikoak, kontsentsuak eraikitzea, langileen prestakuntza, agiri teknikoak sortzea eta berrikustea, bileretan eta debateetan parte hartzea, ikerketak,...

#### **4.2.5 Baliabideen nahiz azpiegituraren kudeaketa**

Baliabide eta azpiegituraren kudeaketari dagokionez, zerbitzua eskainiko duen enpresa arduratuko da giza baliabideen (aukeraketa, harrera, sustapena, laneko segurtasuna,..), baliabide ekonomikoen (egindako jarduerak eta horien fakturak zerrendatzea), baliabide materialen (material berriak erosteko proposamena, hondatutako materialak berritzea,...) eta azpiegituren (Gazte Lokalean erabil daitezkeen espazioen eta baliabideen erabilera), plangintza, arreta eta kontrola egiteko zereginenez.

Hezitzaileen funtzioak betetzeko egokitzat jotzen diren prestakuntza-ikastaroetan parte hartuko dute, eta Gipuzkoan, Gaztematika barnean, eratuiko diren foroetan parte hartuko dute.

Baliabideen kudeaketan, posible denean eta bakoitzari dagokion autonomia mailaren barnean, erabiltzaileen partaidetzarekin egingo da, baliabide ekonomikoak modu egokian erabiltzeari arreta berezia eskainiko zaio.

#### **4.2.6 Kalitatearen kudeaketa**

Hezitzaileek, kudeaketaren metodo edo prozeduraren hobekuntzari begira beharrezkotzat jotzen diren dinamiketan parte hartuko dute.

### **BOSGARRENA: KONTRATUAREN IRAUNPENA**

Kontratuaren iraupena 2013ko urriaren 15etik 2014ko ekainaren 15eraino. Enpresarekin adostuta programazio berezia eskaintzeko proposamena egingo da.

Oporraldietako ekintza berezien programazioa ere proiektuak jasoko du: planifikazioa, programa eta ekintza hauen gastuak zehaztuko dira, hezitzaileen eta ekintzen gastuak bereiztuta, Ordiziako nerabeekin ekintza bereziak ahal izateko.

Kontratua luza daiteke, bi aldeek horrela adostuz gero. Dena den, iraupen osoa, luzapenak barne, lau urtekoa izango da gehienera.

## **SEIGARRENA. AZPIEGITURAK ETA BITARTEKO MATERIALAK**

Kontratua indarrean dagoen bitartean, Ordiziako Gazte Lokala (Lukusain plaza 10-11) enpresa esleipendunaren esku jarriko da doan, bertan Nerabeentzako zerbitzua eskaini ahal izateko.

Udalak enpresa esleipendunaren esku jarriko ditu Nerabeentzako Zerbitzua modu egokian eskaini ahal izateko beharrezko altzariak, materiala, agirien funtsa, ekipo informatikoa eta programak. Zerbitzuaren kudeaketa hasi aurretik guzti honen inbentarioa egingo da. Baliabide horiek ondo zaindu beharko dira, eta baldintza egokian mantentzeko beharrezko neurriak hartuko dira.

Bestalde, erositako edo berritutako materiala Udalaren esku geratuko da, kontratua amaitzen denean.

Udalak ordainduko ditu mantentze-hornidura (energia elektrikoa, berokuntza, ura ), garbiketa eta telefono gastuak; enpresa esleipendunak administrazio egokiaren printzipioak aplikatu beharko ditu horien erabileran.

Ekipamenduan egin beharreko konponketak, berrikuntzak edo inbertsioak ere Udalak ordainduko ditu.

Administrazioak enpresa esleipendunaren esku jarriko dituen informazioa, agiri, programa informatiko eta bestelako baliabide edo datu guztiak Administrazioarenak dira, eta kontratatutako lanak garatzeko beharrezkoa denean baino ez dira erabiliko edo erreproduzituko. Enpresa esleipendunak kontratua amaitzean horiek guztiak itzultzeko konpromisoa hartuko du.

Lizitazioaren prezioan ez dira barneratzen programaketa (jarduerak burutzeko egindako kontratazioak), ikas-materiala, hedapen-kanpainen eta udako programazio berezien gastuak. Udalak, horretarako, aurrekontuko partida bat gaituko du, 3000 euroko partida izango da ekintzetarako.

Enpresa esleipendunak dagozkion eskuratze, erosketa eta enkarguak kudeatuko ditu, Gazteria Saileko udal-teknikariaren oniritzia jasota.

Bestalde, lizitazioaren prezioan sartzen dira material suntsikorren gastuak, esaterako, bulegoko materiala eta jarduera burutzeko beharrezkoak diren materialak ( fotokopiak, e.a)

## **ZAZPIGARRENA: NERABEENTZAKO ZERBITZUKO LAN-TALDEA ETA ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK**

### **7.1 LAN-TALDEA**

Zerbitzua modu egokian eskaini ahal izateko, enpresa esleipendunak hiru pertsonaz osatutako lan-talde bat osatuko du, eta hiru pertsona horiek osatuko dute NZko lan-taldea.

Hiru pertsona horietatik bik hezkuntza-zereginak beteko dituzte, eta besteak, hezkuntza-zereginak egiteaz gain, koordinazio-zereginak ere hartuko ditu bere gain.

Zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoa denean eta batez ere ekintza bereziak antolatzen direnean, enpresa esleipendunak NZko lan-taldea sendotu beharko du, eta laugarren pertsona bat jarriko da laguntzeko edo errefortzuko hezkuntza-zereginak egiteko, aurretik Gazteria Sailak oniritzia ematen badu. Langile horrek, agiri honetan aipatutako beharrezko formazioa eta euskara maila izan beharko ditu.

NZk zuzeneko arreta eskaintzen duen bitartean, gutxienez bi hezitzailek egon behar dute zerbitzua eskaintzen.

Ezusteko egoeren aurrean eta Udalaren baimenarekin, egin beharreko aldaketak egin ahal izango dira Gazte Lokaleko zuzeneko arretaren ordeztu, kalean,.. lan egiteko.

Lan- taldea bi sexuetako pertsonen osatuta egoteari emango zaio lehentasuna.

Enpresa esleipendunak kontratatuko du lan-taldea, eta gutxienez, ikasturteko kontratua egingo die. Horrez gain, egin beharreko ordezkapenez ere arduratuko da. Pertsona titularrek betetzen dituzten baldintza berberak bete beharko dituzte ordezkoei ere.

Hasierako lan-taldean gerta daitekeen edozein aldaketak Udalaren oniritzia izan beharko du.

Udalak TC-1 eta TC-2 agirien kopia bat eskatu ahal izango dio enpresa esleipendunari; horiez gain, dagozkien ordainagiriak eta langileen nominen kopia ere eskatu ahal izango dizkio.

Zerbitzuan lan egingo duten hezitzaileek, gutxienez, honako ezaugarri hauek dituztela egiaztatu beharko dute:

- Gizarte Hezkuntza, Gizarte lan, Magistaritza, Pedagogia edo Psikologian diplomatura edo gradua izatea ; edo antzeko zein goragoko ikasketak (Giza Zientziak)
- 3. hizkuntza eskakizuna, EGA titulua edo horien baliokidea izatea.

Errefortzuko hezitzaileak lehenago zehaztutako prestakuntza eta euskara-maila izan behar ditu.

## 7. 2. FUNTZIOAK

Hezitzaileen funtzioak honako hauek izango dira:

- Koordinatzailearekin batera parte hartuko du NZren eguneko, hileko eta urteko plangintzaren diseinuan, jarraipenean eta ebaluazioan
- Erabiltzaileen nahiz gainerako pertsonen parte-hartzea sustatzeko estrategiak probatu eta abiaraziko ditu. Jolas berrietan sartzera bultzatea, pizgarri berriak eskaini.
- Etengabeko hautematean, gogoetan eta estrategien diseinuan parte hartuko du, erabiltzaileen aniztasuna lortzeko.

- Erabiltzaileen bilakaeraren hurbileko jarraipena egin behar du, horren beharrak (agerikoak edo ezkutukoak) eta eskaerak ezagutzeko.
- Erabiltzaileen behar eta eskaerei jarraipena egitea, horretarako beharrezkoa balitz kale hezitzaileekin kordinatuko lirateke.
- NZren eguneroko jardueraren plangintza eta ebaluazioa egingo du, eta jarduera hori garatuko du.
- Ebaluazioetan eta hobekuntza-proposamenetan parte hartzea eta jarraipen-fitxak betetzea.
- Gazte Lokalaren eguneroko beharrak ezagutuko ditu (beharrezko materialak, funtzionamendu-arazoak,...) eta zerbitzuaren funtzionamendu egokiaz arduratuko da: ezarritako ordutegia bete, ordena mantendu, lokala garbi egon dadila zaindu, erosi beharreko materiala zehaztu, eguneko erregistroak jaso (asistentzia, izen-emateak, materiala, jarduerak,..)
- Dagozkion administrazio-lanak egitea
- Hezkuntza-prozesuak garatuko ditu, zerbitzua erabiltzen duten nerabeekin batera.
- Erabiltzaileen dinamizazioa.
- Harreman zuzena izango du gurasoekin, tutoreekin nahiz komunitateko beste erakunde batzurekin, erabiltzaileekin lotutako gaiak aztertzeke.
- Zerbitzuaren jarraipena egiteko sortuko diren organoetan parte hartuko du.
- Barne-koordinaziorako eta zerbitzuen arteko bilkuretan parte hartu, baita Gipuzkoako lurraldeko Foroetako bilkuretan ere.
- Nerabeentzat interesgarri izan daitezkeen elkarrekin koordinazioa egitea eta zubi-lana egiteaz arduratuko dira.
- Prestakuntza-prozesuetan parte hartuko dute.
- Gazte Lokala garbi eta txukun izango du, nerabeen artean ohitura horiek sustatuz.
- Gizarte-sareetan, komunikabideetan, Udalaren web-orrian, etab. NZ hedatzeko estrategiak abiaraziko ditu.
- Giza-heziketa prozesu bat garatzea zerbitzuaren erabiltzaileekin.

Koordinazioaz arduratuko den pertsonaren funtzioak honako hauek izango dira:

- Proposatutako txanda-sistemaren arabera, dinamizazioarekin lotutako lanketa guztiak.
- Lan-taldeko gainerako hezitzaileen laguntzarekin, NZren antolamenduko eta funtzionamendurako urteko proposamenak egingo ditu, baita hileko plangintzak eta horien jarraipena ere.
- Zerbitzuaren funtzionamendua ebaluatuko du eta beharrezko hobekuntzak proposatuko ditu.

- Gazteria Sailarekin koordinazio-lana egingo du, hilabetean behin, eta beharren arabera, Udaleko beste sail batzuekin (Gizarte Ongizatea, Kultura, Euskara,..) ere bilduko da.
- Gazteria Sailari NZren kudeaketarekin lotutako arazo guztien berri nahiz sortzen diren beharren berri emango dio.
- Bestelako gizarte-eragileekin koordinatuko da (tokiko erakundeekin, ikastetxeekin, beste herri-zerbitzu batzuekin, herriko elkarteekin, etabar.), nerabeekin zerikusi duten gaiak edo jarduerak elkarrekin kudeatzeko.
- Gazte Lokalak dituen beharrei behatuko die eta behar horiei erantzungo die: erosketak, kontuak, administrazio eta kudeaketa kontuak.
- Zerbitzuaren zabalkunderako estrategiak martxan jarri, sare sozialak kontuan hartuz.
- Barne-koordinaziorako eta zerbitzuaren bilkuretan parte hartuko du, baita Gipuzkoako lurraldeko Foroetako bilkuran ere.

Garrantzitsua da hezitzaileek, euren funtzioen garapenean, nerabeekin enpatia izatea. Gertutasuna adierazi behar dute, euren behar eta eskaerei erantzuteko xedapenarekin.

Konfiantza eta errespetuzko giroa bermatu beharko dute euren artean.

## **ZORTZIGARRENA: ZERBITZUAREN EGUTEGIA ETA ORDUTEGIAK**

Zerbitzua **urriaren 15tik ekainera 15era** irekita izango da.

Egutegia eta ordutegia aldatu egin daitezke, programazio bereziak edo jarduera zehatzak antolatzen direnean.

Edozein kasutan, jarduera bereziengatik, Zerbitzuen beharreatatik, erabiltzileek egindako proposamenen arabera,..., Zerbitzuaren egutegia eta ordutegia aldatu egin daitezke eskari berriei erantzuteko.

Zerbitzuaren ebaluazioa egin ondoren, egutegian eta ordutegian aldaketak egin ahal izango dira zerbitzuaren hobe beharrez badira eta beti ere, Udalarekin adostu behar dira aldaketa guztiak.

Zerbitzuak ez du zuzeneko arreta eskainiko ondoko egun hauetan:

- Aste Santuan: ostegunetik astelehenera.
- Abenduan-Urtarrilean: Abenduak 24, abenduak 25, abenduak 31 eta urtarrilak 1.

Gabonetan eta Aste Santuan, opor egunetan, nerabeei zuzendutako programa berezi bat antolatuko da, oporraldien arabera egokitutakoa.

Modu berean, ordutegia programa berezi horren arabera egokitu ahal izango da, eta goizez ere irekitzeko aukera kontuan hartuko da.

### **Gazte Informazio Bulegoa**



**Ordutegia:**

Nerabeentzako ekipamenduaren ordutegi arrunta, honako hau izango da:

Larunbatetan: 17:00 – 21:00

Igandetan: 16:30 – 20:30

Honetaz aparte, hezitzaileak nahiz koordinatzaileak barruko lana (bilerak, ekintzak prestatu,..) egin beharko dute.

Larunbatetan eta igandetan arratsaldetan hezitzaileek ordubete gehiago izango dute programazioa bideratzeko, lokala irekitzeko eta ixteko, lokala txukuna uzteko eta behar dituzten barneko kudeaketak egin ahal izateko. Gainerako orduak zehaztu gabe geratzen dira, udal-teknikariarekin adostuko dira horiek.

Hala ere, koordinatzaileak zenbait egun goizez lan egitea aurreikusten da koordinazio bilerak egin ahal izateko.

Enpresa esleipendunak Gipuzkoako hezitzaileen lan hitzarmena aplikatuko du.

**BEDERATZIGARRENA: LIZITAZIOAREN AURREKONTUA ETA PROPOSAMEN EKONOMIKOA**

Lizitazio-tasa urtean, hau da, **2013ko urritik 2014ko ekainera 45.000** eurokoa izango da, BEZ-a barne.

Urtero ere **3.000** eurokoa izango da, zerbitzuko ekintzak puntualak, tailerrak, ikastaroak etabar eskaintzerako gastuak.

Esleipendunak eskaintza ekonomikoa aurkeztu beharko du, kontratu honen helburu diren zerbitzuetako kostuak zehaztuz, osagai bakoitzaren gastuak zehazturik adieraziz.

## HAMARGARRENA: KONTRATUA ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

1.- Proposamen ekonomikoa: **10 puntu**

2.- Proiektua: **70 puntu**

- Lan proiektua, arlo teoriko laburra eta hura testuinguruan txertatzeko modua: **17 puntu**
- Zuzeneko arreta eskaintzeko proposamena: txanden antolaketa, ordutegiak, adin-tarteak, 6 esku-hartze ildoen tratamendua eta zerbitzuan erabiltzaile eta familien parte-hartzea sustatzea: **35 puntu**
  - 12-15 urte birtartekoentzat : **17,5 puntu**
  - 16-17 urte bitartekoentzat: **17,5 puntu**
- Barne-lanak (besteak beste, plangintza, ebaluazioa eta koordinazioa) antolatzeko proposamenak. Era berean, langile eta zerbitzuen barne-antolaketa eta hartzaileekin eta haien familiekin komunikatzeko bide eta moduen antolaketa.: **18 puntu**

3.- Lehiakidearen esperientzia antzeko lanetan. Lan-taldearen osaketa eta antolaketa. Langile bakoitzaren dedikazioa eta zerbitzua emateko proposatzen den txanda-sistema: **10 puntu**

4.- Hobekuntzak: **10 puntu**